

## Gaztea bai ...

Bihurria, zentzugabea, arduragabea, ausarta, zoroa, parranda zalea, alferra, heldugabea, kexatia, ezjakina ... Gazteria deskribatzeko maiz erabili izan den irudia dugu hau. Egia da, bai, telebista programek zein sare sozialek gehien erakusten duten irudia dela hori, baina txanponek legez errealityateak ez du aurpegi bat eta bakarra. Zapatu gauetako *selfi-ez* eta garagardoez gain, domekako ostearen ondoren badago bestelako bizi bat: ikasketak, lana, eta *hobby*-ak.

Euskal Autonomia Erkidegoan, *Eustat*-ek bilduriko datuen arabera 2012-2013 bitartean 18-19 urteko gazteen eskolatze tasak %80a gainditzen zuen, eta 20-21 urtekoena, aldiz, %60a baino handiagoa zen. Aipatzeko da gainera, adin tarte honetan gazteen %50a baino gehiago goi mailako ikasketak burutzen ari zela. Bestalde, *Espainiar Kultur, Hezkuntza eta Kirol Ministerioak (Mecd)* helarazitako datuei erreparatuz, Espainia mailan, 2011-2012 kurtsoan zehar, 18 urteko gazteen eskolaratze tasaren bataz bestekoa %78,7koa zen; EAE-n %91,7koa zen bitartean. Datuen arabera beraz, oro har gazteria hezia aurki dezakegu Euskal Autonomia Erkidegoan.

Lan mundura sartzeko jasotzen dugun prestakuntza hau lortzeak baina, denbora eskatzen du. Sarritan, ikasketak eguneroko bizitza betetzen diguten beste hainbat jarduerarekin bateratu behar izaten dira. Ez soilik lana, zeini soldata truk eskaintzen diogun denbora, baizik eta *hobby* bezala hasi genituen mota orotako jarduerak, egun lan batek besteko konpromisoa eskatzen dutenak musu-truk.

Marta Perea Jauregi Deustuko unibertsitateko *Organizazio Industrialeko Ingeniaritzako* ikaslea eta Athletic Club-en bigarren taldeko jokalaria da. Futbolak lau ordu kentzen dizkio asteko lau egunetan zehar eta asteburuetan gutxienez goiz edota arratsalde oso bat, 2.mailan egoteak partiduak jolasteko maiz Bizkaitik kanpo joan behar izana baitakar. Martak 15 urterekin jaso zuen 2.mailan jolasteko aukera, eta nahiz denbora ugari kenduko ziola jakin ez zion uko egiteari erreparatu, bere esanetan “*goi mailan jolastea beti da eta amets bat*”. 19 urteko gaztearen kasuan, gainera, duela gutxi bete den amets bat, lehen taldean Valentziaren aurkako ligako partiduan estreinatu baitzen.

Ikasketei buruz galdetzean, jokalari gazteak ez dauka dudarik “*ikasketak premiazkoak direla uste dut, etorkizunean lan munduan aukerak izan nahi baldin baditut behintzat. Emakumea izanik, tamalez, futbolak ez baitit bizitzeko beste emango*”. Dena den, 4 urte eta gero ziurtasunez esan dezake lan eginez gero, eta ondo antolatuz gero denbora dagoela ikasketak, goi mailako kirola, eta aisia bateratzeko. Izan ere, aipatutakoaz aparte, asteburuetan lagunekin egotea ere gustatzen zaiola aitortu digu Martak eta partidurik ez duenean parrandaren bat edo beste botatzea.

Kirolaren mundua alde batera utzita, Lore Nekane Billelabeitiarekin mintzatzeko aukera ere izan dugu, Euskal Herriko Unibertsitateko *Magisteritza* ikaslea eta Belako musika taldeko partaidea. Musika munduan hasi berria den arren, denbora laburrean taldeak lortutako arrakasta dela eta Lororen errutinan leku finko bat hartu du Belakok. Entseguez gain, kontzertuak direla eta sekulako bidaia egin behar izaten dituzte estatu guztian zehar, bai asteburuetan zein astean zehar. Gainera, etorkizunera begira ez dute baztertzen estatutik kanpo ateratzea ere.

Hainbeste bidaia, entsegu, elkarrizketa eta kontzertu unibertsitatearekin bateratzea ez da erraza eta aurkezpenetara edota azterketetara aurkeztu ahal izateko behin baino gehiagotan banatuta bidaiatu behar izan dute. “*Taldeko bi unibertsitatean gabiltzanez klaserik ez galtzeko hegazkinez egin behar izan dugu bidaiaaren bat, beste biak furgonetan zihoa zen bitartean adibidez*” dio musikari gazteak. Dena den, oztopoak oztopo musikak ez dizkio kendu ikasteko gogoak neskato mungiarrari. Nahiz eta gradu ezberdinak hasi zituen, *Matematika* gradua eta *Energia Berriztagarrien Ingeniaritza* gradua, hain zuzen, azkenean bere lekua aurkitu du taldea eta ikasketak bateratzea lortu duen aldi berean. Aipaturikoaz gain, Martak bezala Lorek ere lagunekin denbora pasatzea gogoko du eta ahal duenean ez du aukera galtzen.

Nahiz gazte hauek EAEn %40 ingurukoa den jarduera-tasaren barruan ez diren sartzen, hau da, lan munduan integratu den pertsona kopuruaren ehunekoaren barruan, ez dago ukatzerik bizitza aktiboa eta lanpetua dutela. Behin zitzuten zaletasunak gaur haien bizitzen oinarri bihurtu dira, baina bai batak zein besteak argi dute heziketa eta prestakuntza ezinbestekoak direla, ez soilik etorkizunean gerta litekeenaren aurrean prest egoteko, baita gaur egungo gizartearen aurrean heldutasunez eta irizpide propioekin erantzuteko ere. Beraz, nahiz lehentasun ikaragarria ematen dieten batak kirolari eta besteak musikari, euskal gazteriaren gehiengoak bezala, heziketa eta prestakuntza lehiakor baten beharra sakonki barneratua dute.

Finean, argi dago nahi izanez gero ikasteaz gain bestelako erantzukizunak hartzeko eta aisialdiaz gozatzeko denbora dagoela. Hauek adibide bakanak izan arren, gazteria langile baten bizimoduaren adierazgarri dira eta. Are argiago, gazteria zentzuduna, ziurra, irizpideduna, burujabea, jakina, arduratsua, langilea … eta, ororen gainetik, heldua ere badela.

## Joven sí...

Rebelde, insensato, despreocupado, atrevido, loco, fiestero, vago, inmaduro, quejica, inculto… Es la imagen que a menudo se ha utilizado para describir a los jóvenes. Es cierto que ésta es la imagen que muestran frecuentemente los programas de televisión y las redes sociales, pero al igual que la moneda la realidad no tiene una sola cara. Además de los *selfies* y las cervezas del sábado por la noche, tras la resaca del domingo hay una vida diferente: estudios, trabajo y hobbies.

Según los datos recogidos por *Eustat*, en la Comunidad Autónoma Vasca la tasa de escolarización de jóvenes entre 18 y 19 años en 2012-2013 superaba el 80%, tasa que para los jóvenes de entre 20 y 21 años era mayor del 60%. Cabe destacar, además, que en ese intervalo de edad más del 50% cursaba enseñanzas de grado superior. Por otro lado, los datos transmitidos por el *Ministerio de Educación, Cultura y Deporte* de España a nivel estatal durante el curso 2011-2012, muestran una tasa de escolarización media del 78,7% en lo que a alumnos de 18 años se refiere, mientras en la CAV se lograba un 91,7%. Teniendo en cuenta los datos, en términos generales en la Comunidad Autónoma Vasca podemos encontrar una juventud formada.

Sin embargo, conseguir la formación que recibimos para entrar en el mundo laboral requiere de tiempo. Muchas veces, tenemos que compaginar los estudios con otras muchas actividades que llenan nuestro día a día. No solo el trabajo, al cual ofrecemos tiempo a cambio de un sueldo, sino actividades de cualquier índole que empezamos como hobby y hoy en día nos exigen gratuitamente tanto compromiso como un trabajo.

Marta Perea Jauregi es estudiante de *Ingeniería de Organización Industrial* en la universidad de Deusto y jugadora del segundo equipo del Athletic Club. El fútbol le quita cuatro horas durante cuatro días a la semana y el fin de semana como mínimo una mañana o una tarde entera, dado que jugar en 2<sup>a</sup> división conlleva tener que viajar muchas veces fuera de Bizkaia a jugar los partidos. Marta recibió la oportunidad de jugar en 2<sup>a</sup> división con 15 años, y aun sabiendo que le quitaría bastante tiempo no reparó en la opción de decir que no, según nos cuenta ella misma “*jugar en primera división siempre es un sueño*”. Sueño que para la joven de 19 años se hizo realidad hace poco, cuando debutó con el primer equipo en el partido de liga contra el Valencia.

Al preguntarle por los estudios, la joven jugadora no duda “*Creo que los estudios son algo prioritario, al menos si quiero tener oportunidades de cara al mundo laboral en un futuro. Más aún sabiendo que, desgraciadamente, al ser mujer el fútbol nunca me dará lo suficiente como para vivir de ello*”. Aun así, tras 4 años puede decir con certeza que con trabajo y buena organización hay tiempo para compaginar los estudios, el deporte de alto rendimiento y el ocio. De hecho, además de lo anteriormente mencionado, Marta nos ha confesado que disfruta pasando el fin de semana con sus amigos/as y en caso de no tener partido incluso sale de fiesta de vez en cuando.

Dejando el mundo del deporte a un lado, hemos tenido la oportunidad de hablar con Lore Nekane Billelabeitia, estudiante de *Magisterio* en la Universidad del País Vasco y componente del grupo de música Belako. Aun siendo un grupo nuevo en el mundo de la música, la fama que ha conseguido en poco tiempo ha hecho que Belako ocupe un hueco fijo en la rutina de Lore. Además de los ensayos, los conciertos implican largos viajes por todo el estado, no solo en fin de semana, sino también entre semana. Es más, no descartan salir del estado en el futuro.

No es fácil compaginar tantos viajes, ensayos, entrevistas y conciertos con la universidad, por ello, para poder acudir a presentaciones y exámenes han tenido que viajar separados más de una vez. “*Como dos miembros del grupo estamos cursando estudios universitarios, para no perder clase hemos tenido que viajar alguna vez en avión, mientras los otros dos lo hacían en furgoneta, por ejemplo*”, nos cuenta la joven. De todas formas, pese a los obstáculos ella no ha perdido las ganas de estudiar. Aunque empezó diferentes grados universitarios, grado en *Matemáticas* y grado en *Ingeniería de Energías Renovables* precisamente, al final ha encontrado su sitio además de conseguir unir los estudios y el grupo. Aparte de lo mencionado, al igual que a Marta a Lore también le gusta pasar tiempo con los amigos/as y en cuanto puede no pierde la oportunidad.

Es cierto que este tipo de jóvenes no se ven reflejados en la tasa de actividad que representa la cantidad de personas que se han incorporado al mercado laboral, y la cual supera el 40% en la CAV, pero no se puede negar que son jóvenes activos y atareados. Lo que un día fueron sus aficiones se han convertido hoy en uno de los pilares de sus vidas, pero tanto una como la otra tienen claro que la formación y la educación son imprescindibles, no solo de cara a lo que depare el futuro, sino también para responder con madurez y criterio ante la sociedad de hoy en día. Así pues, aunque prioricen una el deporte y la otra la música, tienen interiorizada la necesidad de una formación y una educación competentes, como la gran mayoría de la juventud vasca.

Al fin y al cabo, está claro que se puede ser capaz de asumir diferentes responsabilidades y disfrutar del ocio además de estudiar. A pesar de que estos son ejemplos singulares, son señal del modelo de vida de una juventud trabajadora. Más claro aún está que la juventud es sensata, seria, fiable, con criterio, sabia, responsable, trabajadora... y, ante todo, madura.